

EUS

Gerrari, militarizazioari eta gastu militarri EZ. Bizitza duina denontzat!

Dinamika belizista, gerra ekonomia eta militarizazioa bizitza duinak bermatzen dituen ereduaren aurkako joera estrukturalak dira. Horrek bidezko trantsizio ekosozialaren aurka egiten du, gastu militarra lehenesten du gastu sozialaren aurretik, eta autoritarismoaren zein oldarraldi atzerakoia eskutik dator.

Kapitalismoaren krisi-testuinguru betean, potentzia eta korporazio nagusiek militarismoan aurkitu dute beren interesak bermatzeko eta aberastasuna metatzen jarraitzeko modua. NATOk gastu militarra BPGren %5era igotzea inposatu du. AEBek Venezuelari egindako eraso inperialista, Kubaren erabateko blokeoa, Israel Palestinan egiten ari den genozidioa, AEB eta Israelen gerra Iran eta Libanoren aurka edota Sudaneko gerra hiltzailea dinamika beraren parte dira.

Jainaga Israeli legez kanpoko esportazioak egiteagatik inputatuta; CAFi salaketa genozidioaren eta kolonialismoaren kontura negozioa egiteagatik; Josu Jon Imazen Repsolek hirukoiztu egingo du Venezuelan duen inbertsioa AEBen injerentziaren ondoren. Azken 20 urteetan hirukoiztu egin da industria militarra Euskal Herrian, eta aipatutakoak adibide batzuk baino ez dira: Euskal Herriko patronalak ere gerraren bidez negozioa egiteko aukera garbia ikusten du.

EBren, Espainiako eta Frantziako gobernuen, zein Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren papera ezinbestekoak dira estrategia horren baitan, lege, aurrekontu, inbertsio, finantzazio edota babes politiko eta instituzionalaren bidez; Gerra hemen hasten da.

Ondorioak larriak dira; batez ere, gerra horiek zuzenean pairatzen dituztenentzat: heriotza; migrazio behartuak; lurraldeen, komunitateen eta bizitzarako azpiegituren suntsiketa; emakumeen kontrako indarkeria. Hala ere, langile klaseari bere osotasunean eragiten dio, eskubide sozial, zibil eta politikoetan murrizketak egiten direnean. Emakumeak*, arrazializatuak eta, oro har, sektore zaugarrituak dira gogorren kolpatuak direnak baita hemen ere.

Euskal Herria gerraren aurka agertu da behin eta berriz, argi eta garbi. NATOri EZETZ esan genion eta intsumisoen mugimendu zabala izan genuen. Asko gara bestelako eredu baten aldeko apustua egiten dugunak, eta, horregatik, EAEko eta Nafarroako gobernuari eskatzen diegu konpromisoak eta neurriak har ditzatela, baita Hego Euskal Herriko, Madrilgo eta Europako erakundeetan ordezkaritza duten euskal alderdi politikoei ere.

1. Euskal Herria, lurralde baketsua eta desmilitarizatua. Gerrarako azpiegiturei eta armen bidalketari ez. Gastu militarri ez! NATO desegiteko urratsak eman, horretarako EAeko eta Nafarroako parlamentuetan neutraltasun estatutuak onartuz. Era guztietako indarkeria desagerrarazi, baita ezkutukoak ere, hala nola diskriminazioa eta desberdintasuna.

2. Gerraren negozioari EZ. Patronalei eta enpresei industria militarren alde ez egiteko eskatzen diegu, eta Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako gobernuari industria militarra zuzenean edo zeharka indartzen duen inbertsiorik ez egiteko. Baliabide horiek trantsizio ekosozialerako eta industriaren moldaketarako erabiltzeko eskatzen dugu, eta langile klasea erdigunean jartzeko.

3. Baliabide publikoak bizitza duinak bermatzeko. Eskubide sozialetan, pentsioetan edota zerbitzu publikoetan murrizketarik ez; hezkuntza, osasuna, zaintza eta etxebizitza eskubideak bermatu. Elikadura osasuntsua bermatu, benetako neurriak hartu krisi klimatikoari aurre egiteko. Harrera duina bermatzeko baliabideak jarri eta mota guztietako harresi zein migrazio politika arrazistak ezabatu.

4. Autoritarismoari eta oldarraldi erreakzionarioari EZ. Balio militaristen, matxisten, arrazisten, indibidualisten, klasisten eta kontrol soziala handitzearen aurrean; gardentasuna, eztabaida demokratikoa, eskubide zibil eta politikoen bermea eta herritarren erabakitzeko eskubidea bermatzeko eskatzen dugu.

ES

La dinámica belicista, la economía de guerra y la militarización son tendencias estructurales contrarias a un modelo que garantice vidas dignas. Va en contra de una transición ecosocial justa, priorizan el gasto militar frente al gasto social y vienen de la mano del autoritarismo y el auge reaccionario.

En un contexto de crisis, **el capitalismo busca seguir acumulando beneficios y las principales potencias ven en el militarismo la forma de seguir acumulando beneficios.** Que la OTAN imponga subir el gasto militar al 5% del PIB, la agresión imperialista de EEUU a Venezuela, el bloqueo total de Cuba, el genocidio que Israel está llevando a cabo en Palestina, la guerra contra Irán y Líbano por parte de los EEUU e Israel, o la letal guerra en Sudán hacen parte de lo mismo.

Jainaga imputada por exportaciones ilegales a Israel, las denuncias a CAF por colaborar con el genocidio y el colonialismo. Las declaraciones de Josu Jon Imaz diciendo que Repsol triplicará su inversión en Venezuela tras la injerencia de EEUU, y estos solo son algunos de los ejemplos. En los últimos 20 años se ha triplicado la industria militar en Euskal Herria; **la patronal vasca ve claro el negocio a través la guerra.**

La Unión Europea, los Gobiernos español y francés, y el Gobierno Vasco y el Navarro, son agentes indispensables de esta estrategia, mediante leyes, planes, inversiones y cobertura política e institucional. **La guerra empieza aquí.**

Las consecuencias de esto son sobre todo dramáticas para quienes sufren directamente estas guerras: muerte, migraciones forzadas, destrucción de territorios, comunidades e infraestructuras para la vida, violencia machista. Sin embargo, también perjudica a la clase trabajadora en su conjunto, a través de la los **recortes de derechos sociales, civiles y políticos, vinculados a la subida del gasto militar.** Las mujeres*, las personas racializadas y las más vulnerabilizadas son las más golpeadas.

Euskal Herria se ha manifestado claramente en contra de la guerra una y otra vez. Dijimos NO a la OTAN y tuvimos un amplio movimiento de insumisión. Somos muchas las personas que apostamos por otro modelo, y, por ello, las organizaciones firmantes **exigimos a los gobiernos de la CAV y Navarra, así como a los partidos políticos vascos con representación en las distintas instituciones de Hego Euskal Herria, en Madrid y Europa,** que asuman compromisos y tomen medidas en los diferentes ámbitos para que:

1. Que Euskal Herria sea un territorio pacífico y desmilitarizado. No a las infraestructuras de guerra y al envío de armas. No al gasto militar y pasos para la disolución de la OTAN, aprobándose para ello estatutos de neutralidad en los parlamentos vasco y navarro. Pasos para la eliminación de todo tipo de violencia, incluidas las ocultas como pueden ser la discriminación y la desigualdad.

2. No al negocio de la guerra. Pedimos a patronales y empresas que no apuesten por la industria militar, y a los Gobiernos Vasco y Navarra que no realicen inversiones que fortalezcan la industria militar directa o indirectamente. Destinar esos recursos para una transición ecosocial y una conversión de la industria que sitúe a la clase trabajadora en el centro.

3. Recursos públicos para garantizar vidas dignas. No a los recortes en derechos sociales, pensiones o servicios públicos; educación, sanidad, cuidados y vivienda. Derecho a una alimentación saludable y medidas reales para hacer frente a la crisis climática. Recursos para garantizar una acogida digna y eliminar todo tipo de muros y políticas migratorias racistas.

4. No al autoritarismo y al auge reaccionario. Frente a la expansión de valores militaristas, machistas, racistas, individualistas y clasistas, así como el aumento el control social, exigimos transparencia, debate democrático, garantía de derechos civiles y políticos, y garantizar el derecho a decidir de la ciudadanía.